
DOHAN ZEURE ETXERAKO

...eta Kitto!

1989ko Urria / 9. Alea

EIBARKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA



Kurtso hasiera: Demaseko zoramena

Honetaz hezkuntza-zentru guztietako arduradunak ados daude: urtero zerrendak prestatu behar dira, gelak antolatu... eta beti sortzen dira arazoak: irakasle bat falta dela, edo oraindik teilatua ez dietela konpondu... Dena den, oztopo guzti hauek gainditu eta azkenean beti moldatzen dira, garrantzitsuenak umeak/ irakasleak direlako.

Nahiz eta eskola batzutan haur kopurua mantendu egin den, jaiotze-tasaren jeitsiera eskola gehienetan isladatzen edo erreflejatzen hasi omen da. Argi dago fenomenu honek irakaslegoarengan ezinegona sortu duela. **San Andres eskolako ikasketaburuak** zioenez, «nire ustez badago arazo honentzat konponbidea. Oraindik jendea behar da beste gauza batzuetarako: musika eta plastikarako espezialistak, ume bereziak tratatzeko jendea, idazkari bat, euskera departamentuko arduraduna...».

Dena den, badirudi oraingoz jaiotze tasaren beherapenak ez duela horrelako eraginik izan BBB, UBI (Batzilerra) eta LH-en (formazio profesionalean). Horrela, **Ignazio Zuloaga Institutoko ikasketaburuak** adierazi zigunez, «igotzen ari da matrikula kopurua baina poliki-poliki, eta uste dugu datorren urtean jeitsi egingo dela fenomenu berri bat sortu delako: REM-a (reforma de enseñanzas medias). Armeria eskolan aurten hasi den REM-era ikasle asko joan egin da; beraz, gerta daiteke zentru publikoetan jeitsiera ematea REM-aren eta ez natalitatearen eraginez». Honetaz gain, honako hau adierazi zigun: «iruditzen zait hezkuntza mailan zentralismo gehiegi dagoela, Deba haran osoa baztertuta dagoela, alegia. Edozer gauza egiteko Donostiara joan behar zara. Oso beharrezkoa ikusten dut komarkalizazio bat egotea».

Bestalde eta euskarari dagokionez, aspektu nabariena A eredua (asignatura guztiak erderaz) desagertzen ari dela da. Kontutan harturik eskola gehienetan A ereduak 7 eta 8. mailetan bakarrik irauten duela suposa dezakegu bi urte barru A eredua guztiz desagertuko dela.

Tarifen gainean zera esan dezakegu: Ikastolako tarifa hiru urtetan e: dela ezertxo ere igo (1.500 pzta inguru), Lasallekoa oso antzerakoa iza nik. Aldiz, Institutoko tarifa 2.500 pztakoa da; aurten lehenengo aldiz UBI-ko ikasleek ez dute COU-ko tasak ordaindu beharrik izango, hau ikasleen mugimenduei esker lortu delarik.

Beste alde batetik, ikasle guztiak eskola kontseiluetan ordezkaturil daude. Dena den, Institutoko ikaslea den Ainhoa Berasaluzek esaten zi gunez, «kontseiluetan entzuten gaituzte, baina praktikan gure eritziel ez daukate pisu gehiegirik».

Datu kurioso bezala, **Juan Luis Urmenetak** (Lasalleko zuzendariak aditzera eman zigunez; «datorren urtetik aurrera bai ikastetxe hau bai ta La Merced eskola mistoak izango dira, hau euren arteko akordio ba ten bitartez lortu delarik».

Azkenik, Hezkuntza Saileko Presidentea den **Libe Betolazak** esar zigunez, departamentu honen helburu nagusiak eskola publikoetako azpiegitura edo infraestrukturak lirateke.

Bestalde, Hezkuntza Sailak Eusko Jaurlaritzarekin urte biko akordioa lortu du; akordio hau dela eta, departamentu honek dirulaguntzak jasc ditu eskola publikoetako obra nagusienak aurrera eramateko.



comercial SUMOFIC, S.A.

ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARak ETA NEURRIRA.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

— DATU-BASEAK — OFIMATIKA — MANTENU-ZERBITZUA
• Ekipamandu eta programak • Telemandua
Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 FAX: 70 28 66 EIBAR

CALCUL

MECANO

Zure Bulegoa Jaztako Egokienak Gara

Toribio Etxeberria
telf 70-07-50 / 70-11-95 EIBAR (Gipuzkoa)

Nutrizio kanpainaren broma serioa

Asko jardun dugu gai honetaz azken hilabetean baina, hala eta guztiz ere zenbait gauza azpimarkatzea komeni zaigu:

☐ Eibartarrok azkenengo errolda edo zentsoan diogunez, %40aren inguruak euskara badakigu. Baina zenbatek, non, noiz eta zenbat erabiltzen dugu? Sinbolo moduan asko ia %80a eta hau oso seinale txarra da, euskara ez delako bakarrik, askorentzat gertatzen den moduan, komertzio, taberna, txakur, umeei... izenak jartzeko.

☐ Kanpaina honekin, euskara ezagutzen dugunok hizkuntzak bete behar duen lehen funtzioa osorik betetzea nahi dugu: etxean erabiltzea. Hori izan delako sasoi larrienetan euskarak bizirik irauteko euskarri edo soporte bakarra. Jokabide horrekin gure ondoren datozenei mesede galanta egiten diegu eta, etorkizuna euskaraz datorrelako.

☐ Euskara herri honen ondasun edo patrimonio nagusitzat jo behar dugu. Baina ondasun dinamikoa, erabiliz bizkortu, sendotu eta handitzen dena; ez, ordea, fosilizatua edo funtzio mugatuak dituenak, inola ere ez. Horrela balitz gureak egin du. Hizkuntzak bizirik irauteko bizitzaren eta gizartearen mutazioetara egokitzen edo adaptatzen jakin egin behar du. Ematen duenez euskarari bereak eta bi ari zaio kostatzen, telebisioa etxeetan sartu, boom industriala gertatu eta familia ohituren aldaketarekin familia giroan protagonismoa galdu egin bait du.

☐ Eskolak ezin du milagrorik egin gure umeak bertan egunak dituen 24 orduetatik 5 egoten direlako eta urteak dauzkan 365 egunetatik erdiak inguru joaten direlako eskolara. Beraz, bistakoa da: ezin dugu gure umeek euskara
ikasteko daukaten aukera eta beharra eskolaren esku mugatuetan utzi. Eta zoritxarrez, gurasoen artean joera horrek dihardu nagusitzen, umeak euskaraz ikasten den eskoletara bidalita dena eginda egongo balitz moduan. Ez jaunak, eskola eta etxea bata bestearen osagarri izan behar dira eta ez baztertzai orain gertatzen den moduan. Jokatu dezagun, beraz, gurasook dagokigun edo tokatzen zaigun rola, justifikazio antzu eta erosoak alde batera utzita. Ez esan gehiago eskoletan ikasten den euskara epela denik, ez mesedez.

☐ Konbentzitu gaitezen metodo naturala, generazio edo belaunaldien artean gertatzen den transbasea dela afektiboena zuzenena eta onuragarriena. Ez bait da hizkuntza bakarrik ematen duguna, honen inguruan bizitzeko erak, memoria historikoa, kosmogonia, bizitza interpretatzeko bideak... ere transmititzen dira eta. Zer hobe titi eta altzotik ikastea baino?

☐ Baina, jakina, emateko euki egin behar, eta hemen dago koxka. Baina jaunak, nahi ditugun martingala guztiak asmatu arren ezin dugu hau gainditu. Alferrik da. Gure seme-alabentzako onena nahi badugu eta behar den moduan, garantia osoz, emateko prestaturik ez bagaude ikasi egin beharko dugu. Orain, aukera daukagunean. Gero, beharbada, beranduegi izango da. Ura pasatu eta gero presa egiten jarduteak ez du ezertarako balio. Gure umeek handitzean erderaz egiten badute, ez lamentatu, euskarak ez du eta malkoen beharrik.




SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta AYERBEk oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
«... eta Kitto Sariketa»

8. Aleko sariketaren erantzuna «Bidebarrieta kaleko lehen parkean dago». SARITUA: AINARA URIGUEN, 12 urtekoa, Jardineta kalean bizi dena. HURRENGO SARIKETARAKO URRIAREN 15erako bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!



AYERBE LIBURUDENDA

EUSKARAZ

- Obabakoak (B. Atxaga)
- Saturno (A. Urretabizkaia)
- Mintzoen Mintzak (J.A. Arrieta)
- Sinonimoen Hiztegia (Batzuk)

LIBURU SALDUENAK

ERDARAZ

- La isla inaudita (E. Mendoza)
- Beltenebros (A. Muñoz)
- Versos Satánicos (S. Rusdhie)
- El péndulo de Foucault (V. Eco)

IRAKURLEAREN TXOKOA

BERRIRO ETXIAN!!!

Horrek bai oporrak horrek!! Baina hemendik aurrera betiko martxari ekin. Izan ere, beti beldur berdina izaten bait dut: herri honetan hasi eta gero gelditzean, —nahiz eta oporretan gelditu— berriro lehengoari eustea zaila izaten dela.

Mesedez, zuek, «Kitto» talde horretakook, hasi berriz, zortzi ale atera dituzue eta jo aurrera!! Azaldu berriro tabernetan, kioskoetan, herriko jendearen artean. Farre pixka bat ere egingo dugu berriz zuekin: lagunak, ezagunak ikustea hor zuen argazkietan beti da atsegina eta irribarrea sortzekoa. Ea ni neu ere noizbaiten ateratzen naizen zuen argazki inkesta horietan!! Ikusi ditut bai zuen «reporter» horiek kaleetan jendeari galdezka eta kassetak besapean, nerbioak ezin izkutaturik. Nahiko itsusia nahiz dirudienez, nire albotik pasa eta argazkilariak ihes egiten bait dit beti. Baina ni baino zatarragoak atera dituzue.

Gainerantzekoak baztertu barik, «Eustakitto»ri nire zorionik beroenak. Badago bai golfo kuadrila ederra Euskal Herriko jaietan zehar!!

TASIO


Oharra: Publizitatearen kontra nago. Baina hortik diru pixka bat aterako duzuenez... Horrekin aurrera jarraitzeko modua baduzue, ale lodiagoak ateratzeko aukera ematen badizue, ba, konforme.



Mª Tere:

23 urtez ekintza sozialari lotuta

Askok eta askok jakingo daben arren, beste askok, seguru eztabela sekula entzun badauala Eibarren Ekintza Sozialera bideratutako zentru bat. Bertan, Mª Tere bertako zuzendarixak diñonez, gauza asko eitxen dia ta danek daukie horra juateko aukeria. Gure dabenandako direziñua honakua da: Argatxa Jardinak 13; Ipuruako auzuan dago berau, eta telefonua: 11 73 76.



Mari Tere Osoro ekintza sozialaren bultzatzaile neka ezina

«Hara!! Bai!!... Ba... lana badaka; bai, bai. Preokupaziñua eta... baiña... bueno ba... neretzako, neure burua desarrollatzeko modu bat be bada. Honek Urrian hasi ta Ekainerarte funtzionatzen du.

Famili eta gizarte hezketarako zentrua» izenakin zer aittu leike?

Gure modura, beste batzuk be, komentau dotsagu Mª Tereri, apur bat bidezkua ez dan zeozer ulertzen dabe izen horrekin; batez be familixia osotzeko, sortzeko edo familixiakin zerikusixa dakan zeozeren antza hartzen dotsie horri izenorri. Mª Terek zera argittu desku: «holan daka izena, baiñan hau ba... danetik pixkat da. Danetik etorten da hona: jente nausixa... gaztiak be bai!! zuen moduko gaztiak be bai!!... etortzen dira; eta, mutillak be bai!!

Orduan matrikularik edo pagatzen da edo, zelan?

«Bai, zeozer. Baiña beti da merkia, ze... Ekintza Soziala da eta... Aurrezki Kutxa Munizipalan laguntzia dakanez ba... merkia da. Eta gero baita be ba... ezin dabenentzako izaten dira merkiauak».

Zu zelan hasi ziñan hamen? Honek zenbat denpora daroia?

23 urtian nao ni hamen, hau Eibarren sortu zanetik ni hamentxe nao zuzendari moduan. Ni, oiñ esaten deben moduan -animadore soziokultural- modura nao hamen».

Jentiak erresponditzen dau hona etortziakin, edo ez?

«Bai, bai; jentia etorten da. Neskak gehixao etorten zian len baiña oiñ zabaldu eiñ da, zentru guztixak zabaldu eiñ dira. Hona andereñuak eta maixuak be etortzen dira klasiak hartzera: saskigintza, makramia, tapizak... eta holakuak eitxera etortzen dia, ze... kursilluak emoten doguz gabian. 7-retan hasi ta 9-rak arte. Gabian emoten doguzan kursilluok 20 ordukuak izaten dia eta 3000 pzta balixo dabe, merkia izaten da. Eta bestela, hamen, arratsaldian datozenentzako badao kuotia be: 300 pzta izaten da kuota osua hiru hillabete osuagaitxik. Arratsaldietan emoten dogu gauza bat diferentia egun bakotxian, eta kuotia pagatzen dabenak eskubidia daka arratsaldeko gauza guztixetara etortzeko. Jente asko etortzen da sukaldera, ta esku lanak eitxera be bai, ta... holakuak. Beste askok nahixao dabe tabernan kartetan jokatzia, baiña... danetariko jentia dao!! Beste batzutan modak be egoten dia, eta esateko... makramia eitxeko modia badator, danak etorriko dira txindurrixen modura baiña bakarrik horixe eitxera bestiak baztertuta».

- ***«Danetik etortzen da hona: jeute nausixa... gaztiak be bai!!»***
- ***«23 urtian nao ni hamen animadore soziokultural modura»***
- ***«Honek Urrian hasi ta Ekainerarte funtzionatzen dau eta merkia da»***
- ***«Euskeriari zoritxarrez lagundu eiñ bihar detse aituntamentotik»***

Holako zentruak asko daoz, edo zelan doia hori?

«7 daoz Gipuzkua guztixan: 1 Eibarren; 2 Donostian; 1 Lasarten; 1 Andoaiñen; 1 Errenterixan eta 1 Arrasaten. Danok dakagu funtzionamendu bardiña. Donostian koordinatzaille batekin eitxen doguz billerak eta gero harek eitxen dittu billerak aurrezki kutxetakuekin».

Lan gogorra da, edo zelakua?

«Hara!! Bai!!... Ba... lana badaka; bai, bai. Preokupaziñuak eta... baiña... bueno ba... neretzako, neure burua desarrollatzeko modu bat be bada. Honek Urrian hasi ta Ekainerarte funtzionatzen dau.

Bost-sei bat maixu-maistra inguru ibiltzen dia hamen klasiak emoten eta bestieri erakusten».

Klasiak zelakuak izaten dia?

«Klasiak jentiaren neurrixan izaten dia, batzutan jente gehixao eta bestetan gitxiao izaten da. Sukaldekuetara asko etortzen dia, mutil eta gizonak be bai ze... gaur eztao lengo konturik, danetik jakin bihar, ezta?

Gero hitzaldixak, mahai inguruan eta holakuak be eitxen doguz lantzian behin eta horrek duhan izaten dia, jentia entzutera etorri daitten antolatzen dia».

Klasiak euskeraz edo erderaz aukeratzeko elejixarik ba dao?

«Hori subentzionau eiñ bihar dau batenbatek ze... nik ez dakat dirurik holan presupuestuetatik urtetzeko. Euskeraz emon izan doguz pare bat gauza baiña... hori Euskera zerbitzuak ordaindu zeban aiuntamentutik.

Zentru hau beti dao prest euskeraz eta erderaz emoteko, baiña horretarako aiuntamentuak berak lagundu bihar dau. Neri esateztenian beti baietz esaten detsat danari, prest nao hamen. Euskeriari, zoritxarrez, lagundu eiñ bihar detse. Nik bialdu neban kulturako atalera 8 hilabete dala subentziñuak eskatzeko solizitudia baiña ondiokan ez dot euki erantzunikan».

Aurtengo urterako ba dao kursillo eta bestelakorik?

«Aurtengo urterako be, urteroko moduan, badaoz gauzak prestauta eta horren gauzon artian dagoz: ginasixia, makramia, sukaldaritza, eskulanak, jantzigintza, alimentaziño-nutriziño dalakua (kontsumua barru) eta beste batzuk be izango dira urtian zihar. Honek, aurrian esandakuak: Urrixan 2-an hasi ta Abendurartekuak dia.

Dauan beste gauza bat haurtzaindegixa da, eta hori duhan izaten da hona klasietara datozenentzako. Matrikulia eitxeko ez dao fetxa konkretu eta bakarrik baiña komeni da ahalik eta bizkorren eitxia gero klasietan iñor atzeraturik ez geratzeko».

GURBIL
Pizzeria Jatetxea
isasi kalea, 1
eibar tf. 111152

GARAJE
GARCIA
Austin Rover
Zerbitzua
— Fundidores
— Bidebarrieta 39
Telf.: 11.22.14 / 11.02.83

pintxo bar
San Juan 3 - Telf 700899

Musika Mh
HARATEGIA
Odolosteak Txorizoak
Bildots eta Txahal okelak
Bidebarrieta, 12
Urkizu, 18 - Telf 120194

APALATEGI
KARROZERIAK
Konponketak eta eten gabeko grua zerbitzua
EIBAR Telf.: 12 17 12

VINOS
OROZ
EDARI BANAKETA
Tlfn.: 11.11.50 EIBAR



HAU KLIMA ZOROA, HAU!!

GORBEAKO ARTZAIA: «Eguraldia gero eta eskasagoa da. Errua kontaminazioak dauka».

ARRATEKO ARTZAIA: «Aurtengo negua oso gogorra datorkigu, hotz haundia eta euri asko».

P. ZABALA METEREOLOGOA: «Aldaketa batzuk badaudela argi dago, motiboen susmoak ere bai gauza zihurrik ez».

Egia da, klima guztiz zoroa daukagu. Aixolako presa ikusita argi esan dezakegu klima aldatuz dijoala. Euskal Herri mailan 25 urtetako datuak bilduriko estudio batek hala dio: gero eta eguzki ordu gehiago ditugu, itsasoaren tenperatura goruntz dijoa (medusa zitalak itsasaldean agertuz), Andaluzian klima desertikoa sartzen ari da, sirimiri gutxiago egiten du,... Orain sirimiria egin beharrean euri zaparradak egiten ditu, Espainian egiten duen antzera. Gertatzen dena da barrualdean lautada haundiak daudela eta ez dela ezer gertatzen, baina Euskal Herrian, hain aldapatsua izanik, problema latzak sortu daitezke, uholdeak agertuz.

Beraz, aldaketak badirela argi dago. **Gorbeako artzaiak** esan digunez «eguraldia gero eta eskasagoa da, eta honen errua kontaminazio edo kutsadurari bota behar diogu: kotxeak, tximiniak, zentral nuklearrak,... kalte haundia egiten digute. Orain dela urte batzuk aurrikuspenak edo prebisioak bete egiten ziren; orain ostera, klima zoraturik dabil eta aurrikusitakoaren alderantzizkoa gertatzen da beti».

Gorbeako artzaiari negurako pronostikoa eskatu diogunean, «ezin dela oraindik ezer argirik esan» erantzun digu, «oraindik ez bait dira tenporak pasatu». Hala ere **Arrateko artzaiak** zerbait aurreratu digu, «klima urte batetik bestera guztiz aldatu da, ihaz oso txarra, aurten oso ona,... Aurtengo negua gogorra datorkigu, oso eskasa, hotz haundia eta euri askorekin». Hau egia bada, hasi beharko gara katiuskak, aterkiak eta beroki lodiak erosten negu honi aurre egiteko.

Euskadi Irratiko meterologoarekin **Peio Zabala** jaunarekin ere izan dugu elkarrizketa bat. Honek dionez «oso erlatiboa da klima aldatu dela esatea. Horretarako 50-60 urtetako denboraldi bat hartu beharko genuke benetako aldaketak ikusteko. Klimaren gai honekin argi ikusten dena da jendea askoz gehiago arduratzen hasi dela, gainera klimaren aldaketa modan jarri den gauza bat da. Klima aztertzerakoan susmoak euki ditzazkegu. Aldaketa batzuk badaudela argi dago, baina aldaketa hauen zergatia aztertzeko oraindik ikerketa asko egin behar dira. Susmo batzuk badaude: ozonoan dagoen zuloa, kutsadura,... baina oraindik ezin dugu ezer zihurtatu. Azkenaldi honetan susmo hauek egiaztatzen hasi dira; adibidez, kutsaduraren ondorio bezala «euri azidoak» agertu dira, edo ozonoan dagoen zuloarekin «inbernadero efektua» galtzeko arriskua daukaguk, udan bero handiago eta neguan hotz latzagoak izanez».

KLIMAREN ALDAKETARIK IKUSTEN AL DUZU?




ROSITA ETA Mª CRUZ. 59 eta 67 urte. Jostunak.
Aurtengo uda zoragarria izan da! Oraindik ez digute urik kendu, baina lehorte izugarria jasaten ari gara. Ez dakigu honen zergatia, naturaren esku dago.



MARIA. 40 urte. Etxekoandrea.
Klima askoz ere lehorrago dago, nire ustez kotxeen kutsaduragaitik. Oraintxe bertan arnas hestuka nator kaletik kotxeen keak eraginda.



AITOR. 20 urte. Ikaslea
Nire ustez asko aldatu da; bero gehiago egiten du eta euri gutxiago. Beharbada industriak, kontaminazioak du guzti honen errua, batek daki!!



DAVID BARRIOS. 14 urte. Ikaslea
Klima gero eta hobeagoa da. Euri gutxi egiten du, beharbada atmosferagaitik izango da.


ZERK ERAGINDA SORTU DA ALDAKETA HORI?



OIHANE MARIAGARAI, 14 urte. 8. mailako ikaslea
Nire ustez klima pixka bat aldatu egin da, bero larregi dago, eta aurten inoiz baino beroago. Horrela jarraitzen badugu ur falta demasak jasan beharko ditugu. Zerk eraginda diozu? ez dakit, ozonoak zerikusirik badauka?



Mª JOSE. 23 urte. Etxekoandrea
Noski aldatu dela! gero eta txarragoa gainera. Uholdeen beldur gara, tronba haundi bat jauzi eta akabo! Ez diot aldaketa honi explikaziorik aurkitzen, beharbada zerura bidaltzen duten koheteengaitik, ez?



JOSE LARRAÑAGA. 64 urte. Jubilatua
Bai, bai, noski diferentzia handia dagoela lehengo kilimarekin. Lehen denbora hobiak eitxen zitxuan, orain aldiz sargori eitxen dau, bi hilabete daroiaguz bero demasekin, beti izarditxan. Kontaminazioa izango ote?

Urria AGENDA Urria

• EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK

Antolaturik

15an: OTXOA «Memoriala» (Gazteak)
29 an: Herri Lehiaketa (Federatuak)

• C. DEPORTIBOKO MENDI TALDEA

Ibilaldiak

7an: Arantzazu — Arlaban Mendatea
28an: Arlaban — Urkiola Mendateak

• ERAKUSKETAK / UDAL.

KULTURA BATZORDEA

2rarte: Udaletxeko Kultur Aretoan DEBAko ARTE ESKOLAKO lanak.
5tik -17ra: ARGAZKI ERAKUSKETA. Pedro Gonzalezen «IGIDURAK. C. Deportiboko Argazki Taldearen laguntzaz.

• LEHIAKETAK

20an: «SAN ANDRES 89». Kartelak aurkezteko epea bukatzen da.
26rarte: INDALEZIO OJANGUREN II ARGAZKI LEHIAKETAra lanak aurkezteko epea.

• MUSIKA

2an: TXISTULARI eta UDAL MUSIKA BANDA. KALEJIRA.
7an: ROCK KONTZERTUA. Untzagan Gaueko 10,30etan. TALDEAK: DOSIS, ANTE LA DUDA LA MAS TETUDA, LA BANDA DE ARIS.
29an: Txistulari eta Musika Banda. Kontzertua.

ARGAZKI IKASTORA

C. Deportiboak Antolaturik/Euskaraz

Urriaren 2an EUSKARAZ emango den ARGAZKI IKASTAROari hasera emango zaio.
ORDUA: ARRATS. 7,30 — 9,30.
EGUNAK: Astelehen eta asteazkenetan
TOKIA: KLUB DEPORTIBO

FAMILI ETA GIZARTE — HEZKETARAKO ZENTRUA IKASTAROAK

PROGRAMA OROKORRA — Urte osokoa

NOIZ	10 - 11	4 — 6	7 — 9
Astelehena	Gimnasia	Makramea	Otargintza
Asteartea	—	Sukaldaritza	Sukaldaritza
Asteazkena	Gimnasia	Eskulana	Otargintza
Osteguna	—	Jostea eta Kortea	—
—			Sukaldaritza
Ostirala	Gimnasia	Nutrizioa (Kontsumoa)	—

Nutrizio ikastarorako guarderia dohain
IZEN EMATEA: ARGATXA JARDINETAKO Zentroan: 11 73 76 Telefonoa

NORK ZER

• Koordinatzailea:
Fernando Muniozguren
•Erredakzio-taldea
Ana Aizpurua
Idoia Arrillaga
Mireia Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren
Joseba Zinkunegi
• Argazkilariak
Mikel Gorosabel
José Valderrey
• Maketazioa
José Valderrey
• Marrazkiak
Leire Astigarraga
• Komikia
Ander Gisasola
• Inprimaketa
Antza